
XXXII.
Nazioarteko
antzerki jaialdia
Festival internacional de teatro
Santurtzi
urriak
octubre
27
azaroak
noviembre
26
TICKET
www.serantes.com
Serantes
KULTUR ARETOA

**Serantes Kultur Aretoa**
Pza. Gabriel Aresti, s/n
48980 SANTURTZI
Tfno. 94 483 92 44
serantes@serantes.com
**www.serantes.com**

**Telefono bidezko Salmenta • Venta Telefónica**

944 310 310

ABONU OROKORRA (Haurrentzako obrak izan ezik)
ABONO GENERAL PARA TODOS LOS ESPECTACULOS (Excepto infantiles) ...................... 100 €

SKAko BAZKIDEENTZAKO ABONU BEREZIA (Haurrentzako obrak izan ezik)
ABONO ESPECIAL PARA SOCIOS/AS DEL SKA ............................................................... 90 €

GAZTEENTZAKO ABONUA (16 urtetik 25era)
Lanak: “Sensormen”, “Time al Tiempo”, “Plecs”, “Inorako Bidaia”
ABONO JOVEN (de 16 a 25 años)
Obras: “Sensormen”, “Time al Tiempo”, “Plecs”, “Inorako Bidaia” .............................. 8 €

Ikuskizun bakoitzeko 15 sarrera edo gehiago erosita: % 20ko beherapena.
Compra de 15 o más entradas por espectáculo: %20 Dto.

Ez da bermatzen eserleku bera ikuskizun guztietarako.
No se garantiza la misma butaca para todas las funciones en la compra de abonos

Informazio gehiago/Para más información: **www.serantes.com**



Ohore handia da niretzat berriro ere Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren egitaraua aurkeztea, gure herrian egiten diren jarduera kultural aipagarrienetako bat, zalantzarik gabe. Izan ere, gure jaialdiaren ibilbideak inguruko artista, publiko eta erakundeen interesa piztu du.

Hogeita hamabi urtez, hemen Santurtzin, Estatu osoan zein inguruko herrialdeetan aurkeztu diren ikuskizun garrantzitsuenetako batzuk izan ditugu. Baina aurten haratago joan gara eta Amerika edota Europatik datozkigun hainbat ikuskizun ekarri ditugu, denok goza ditzagun. Horrez gain, Kukubiltxok azaroaren 24an estreinatuko duen ikuskizuna nabarmendu nahi dut, bertan gure herriko historiaren gertakari berezi bat antzeztuko da eta. Azken batean, antzerkia atsegin hartu eta hausnarketa eragiteko ikuskizuna izateaz gain, geure burua gizarte eta gizaki gisa ikusteko ispilua ere izan daiteke.

Goza dezagun, bada

Es un honor tener una vez más la oportunidad de presentar el programa del Festival Internacional de Teatro; seguramente la actividad cultural más relevante de cuantas se programan en nuestro municipio. No en balde, la trayectoria de nuestro festival ha concitado el interés de artistas, público e instituciones de todo nuestro entorno.

Durante treinta y dos años hemos podido asistir a la presentación en nuestro municipio de algunos de los espectáculos más importantes de cuantos se han puesto en pié en el Estado y en los países de nuestro entorno. Este año, no será una excepción en nuestra trayectoria, tendremos la oportunidad de disfrutar de espectáculos que vienen de América o Europa. También me gustaría llamar vuestra atención sobre el espectáculo que Kukubiltxo estrenará el día 24 de noviembre, dado que en él se recrea un episodio muy singular de nuestra pequeña historia local y es que el teatro, como siempre, además de divertir y provocar el encuentro y la reflexión es, a su vez, un buen espejo donde podemos mirarnos como sociedad y como seres humanos.

Disfrutémoslo

**Ricardo Ituarte Azpiazu**
Santurtziko Alkatea
Alcalde de Santurtzi



# Sensormen

## Producciones Yllana

SENSORMEN ikuskizunean uztartu egiten dira komedia, musika eta perkusioa batetik, eta eszena-planteamendu txundigarri bat bestetik. Izan ere, YLLANAren keinu bidezko umoreak eta BULBU perkusio-jole eta performer multimediaren ikuskizun erritmiko eta teknologikoak bat egiten dutenean, ikuskizun berritzaile eta erabat dibertigarria sortzen da.
SENSORMENeko protagonistak erritmo munduan adituak diren lau sasi zientifiko zoro dira, zeintzuek sentsoredun hainbat tresna erabiltzen dituzten zentzugabeko esperimentu-abestiak egiteko, hauek behar-beharrezkoak baitira protagonisten helburuak lortzeko, gizaki eta sentsore arteko lehen hibridoa sortzea hain zuzen, SENSORMAN.

Espectáculo donde colisionan comedia, música, percusión y un planteamiento escénico deslumbrante. De la fusión del humor gestual de YLLANA con los espectáculos rítmicos y tecnológicos del percusionista y performer multimedia BULBUL surge un espectáculo sumamente divertido e innovador.
Los protagonistas de SENSORMEN son cuatro pseudocientíficos tarados, especializados en el mundo del ritmo, que se sirven de diversos aparatos con sensores para ejecutar absurdos experimentos/canciones necesarios para llegar a un objetivo final: construir el primer híbrido entre humano y sensor: el SENSORMAN.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:**
Producciones Yllana, S.L.
**Egilea/Autor:** Yllana, BulBul
**Zuzendaritza/Dirección:**
David Ottone, Juan Francisco Ramos
**Aktoreak/Intérpretes:** BulBul, Jony Elias, Chema Animal, Chus Errera

### Umorea-antzerkia / Teatro-humor

**URRIAK 27 OCTUBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 90’
10 €



# *Dance me*
# *to the end on/off love*

## Granhoj Dans

Honakoa esperimentu berria da. Bertan aurreko produkzioetatik aukeratutako hainbat irudi ikusiko ditugu, baita berregindako beste berri batzuk ere, denak testuinguru berri batean.
Palle Granhoj koreografoak, berriro ere, orain arte ikertu ez diren zenbait arte-dimentsio deskubrituko ditu. Horretarako, aurrez aurre jarriko ditu bere eszena-hizkuntza —prentsaren hitzetan, "guztiz bisuala eta magikoa"— eta olerkari eta konpositorearen unibertso malenkoniatsua.
Oraingo honetan ere, Granhoj eremu espresiboak menderatzen saiatuko da, eta beti bezain tinko, dendena emango dio dantzari, behin eta berriro berraztertu eta garatu beharreko arte-hizkuntza honi. Hona hemen Granhoj eta Cohenen arteko topagunea: nostalgia, lortezina den guztiagatik, berau da-eta sormenaren iturria.
Ikuskizunean 8 musikarik eta 4 performer-ek hartuko dute parte. Denak batera eta konpainiaren lan-prozeduraren printzipioekin bat eginik, hau da, oztopatzearekin, zera erakutsiko digute: hitzak gorputzari oztopoa jartzen diola eta ekinaldian gorpuztu egiten dela.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Ekoizlea/Productora:**
Granhoj Dans
**Egilea/Autor:** Palle Granhoj
**Zuzendaritza/Dirección:**
Palle Granhoj
**Aktoreak/Intérpretes:** Palle Granhoj, Hilde Karlaen, Anne Eisensee, Carina Raffel, Morten Moller, Thierry Boisson. Kim Shulz, Niens Bo Elsmand, Palle Klok, Mads Pinholt

La compañía danesa Granhoj Dans se apoya en la obra del cantante y poeta canadiense Leonard Cohen, para crear un espectáculo visual, entre performance y concierto.

La crítica ha dicho:
"Palle Granhoj danza con Leonard Cohen mientras el dolor y el desenfreno lamen llamas de belleza".
**"En Dance me to the end on/off love** las palabras se convierten en canciones, la música en imágenes y el dolor se transforma en belleza".
"Con Granhoj Dans se sienten silbidos a través del aire y a través del corazón y uno no puede sino regocijarse".

**Dantza-antzerkia / Danza-teatro**

**URRIAK 28 OCTUBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 80'
12 €



# *La escuela de la desobediencia*

## Producciones Andrea D´Orico

Honakoa emakumeen inguruko hausnarketa-lana dugu; batetik, emakumeen ideia moralen eboluzioaren inguruko hausnarketa eta bestetik, sexu-grina adierazi, defendatu eta asetzeko eskubidearen ingurukoa familia, ezkontide, erlijio eta Estatuaren beraren gainetik.

Lan honek emakumeen heziketaren kontzeptu makurra erakutsiko digu, eta agerian jarriko du emakumeen askatasun sexual eta espiritualaren beharra.

Ez ote da emakumeen heziketa amarru hutsa, inori azalpenik eman gabe, sexualitatea erabat gozatzeko duten eskubidea eta askatasuna geldiarazteko?

A Franchon su familia le va a imponer ser monja. Su prima Susanne le incita a despertar sexualmente y a matricularse en una escuela portatil en la que ella misma es profesora y que enseña a desaprender todo lo aprendido. Franchon en cada lección descubre los verdaderos intereses de la educación femenina, a la par que a satisfacer su intelecto y su propio deseo sexual, hasta convertirse para su época en una mujer libre. Eso sí, ¿A cambio de qué precio?

Esta obra nos habla del derecho de la mujer a expresar, defender y satisfacer su deseo sexual por encima de la familia, el matrimonio, la religión y hasta del propio Estado.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Ekoizlea/Productora:**
Producciones Andrea D´Orico, S.L
**Egilea/Autor:** Dramaturgia Paco Bezerra
**Zuzendaritza/Dirección:** Luís Luque
**Aktoreak/Intérpretes:**
María Adánez y Cristina Marcos
Soprano: Rosa Miranda
Viola de Gamba: Sofía Alegre

**Antzerkia /Teatro**

**URRIAK 29 OCTUBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 90’
18 €



# *Time al Tiempo*

## Companía Ron Lalá

Tic-tac, tic-tac, tic-tac... Ron Laláк **"Time al tiempo"** aurkeztuko du. Hamar segundu, ehun egun eta mila urte iraun eta denbora errealean gertatuko den ikuskizuna. Umorea, antzerkia era musika zuzenean gozatzeko aukera eskainiko digu. Bost aktore eta musikari, hainbat musika-tresna taula gainean bilduko dira gaur egungo aldiak orduan jartzeko sketch sorta baten bidez. Poesia tanta garratzez bustitako umore zorrotza proposatuko digute kritika egiten duen lan honetan, ikuskizun osoa barre batean emateko. Funtzio bakoitza denboraren eskala guztietan zehar egindako bidaia baten moduan aurkeztuko digute: gure eguneroko denboratik hasi eta denbora kosmikoraino, gure historiaren mendeetatik intsektu baten egun bateko bizitzaraino... Denboraren jatorritik hasita, (Big Bang Band berezi batek zuzenean abestua), egunero iruzur egiten digun Denbora beraren bakarrizketarainoko bidaia da. Ordu eta erdian zehar denboraren bankaria, Minutti mafia-jauna, Guru Gunguru Gungurugunguru-a (milurteko kobra) gizakiaren jarraitzaileak, Iragan eta Etorkizun raperoak, beste zenbait pertsonaia eta istorio zoro, frenetiko... eta atenporalen artean.

Un espectáculo desternillante, en tiempo real que dura diez segundos, cien días y mil años. Humor, teatro y música en directo. Cinco actores y músicos, un puñado de instrumentos en escena y una colección de sketches para poner en hora los tiempos que corren. Humor crítico regado con gotas ácidas de poesía para que la risa suba a la cabeza. Cada función se plantea como un recorrido por el tiempo en todas sus escalas: desde nuestro tiempo cotidiano hasta el tiempo cósmico, desde los siglos de nuestra historia hasta el día de vida de un insecto... Un viaje desde el origen del tiempo (cantado en directo por una peculiar Big Bang Band) hasta el monólogo del mismísimo Tiempo, ese trilero que nos tima a diario. Conoceremos al banquero del tiempo, al mafioso, al Guru Gunguru Gungurugunguru (la cobra milenaria), a los hinchas del ser humano, a los raperos Pasado y Futuro, entre otros muchos personajes e historias delirantes, frenéticas.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:** Ron Lalá
**Egilea/Autor:** Ron Lalá
**Zuzendaritza/Dirección:** Yayo Cáceres
**Aktoreak/Intérpretes:** Juan Cañas, Álvaro Tato, Daniel Rovalher, Iñigo Echevarria, Miguel Magdalena

### Antzerkia-umorea-musika / Teatro-humor-música

**AZAROAK 03 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 80'
10 €



# *André y Dorine*

## Kulunka Teatro

Hitzetatik haratago doan hizkuntzan, Maskaran oinarritzen den hizkuntzan eta nolabait ikusten den poetika sakona erabiliz, hunkitu egingo gaituen historia bat kontatuko digute. André eta Dorine adineko bikotea errutinak eragindako utzikerian erori da. Garai batean elkarrenganako grina pizten zuena gaur indiferentzia eta eztabaidatzeko aitzakia baino ez da.
Laster zerbait etorriko da monotonia hau apurtzera: gaixotasuna. Alzheimerra, gure arerio nagusia, oroitzapenen hondatzailea, nortasunaren suntsitzailea. Baina André eta Dorineri beste aukera bat ekarriko die eta euren arteko harremana berriro loratuko da. Oroitzapenetan zehar bidaia egingo dute nortzuk izan ziren gogoratuz, nortzuk diren ez ahazteko.

Con un lenguaje que trasciende más allá de la palabra y que se apoya en la Máscara como puente de una poética visual entrañable se cuenta una historia que emociona, se trata de André y Dorine: una singular pareja de ancianos que, como tantas otras, ha caído en la desidia provocada por la rutina. Desde el humor veremos como lo que antaño despertaba la pasión del uno por el otro, hoy en día se ha convertido en indiferencia o incluso motivo de discusión.
Pero un suceso viene a romper esta monotonía: la enfermedad. El alzheimer, nuestro gran antagonista. Devorador de los recuerdos, de la memoria, de la identidad. Se inicia entonces un volver a empezar en la relación entre André y Dorine. Un viaje a través del recuerdo. Recordar quiénes han sido para no olvidar quiénes son.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:**
Kulunka Teatro, S.L.
**Egilea/Autor:** Iñaki Rikarte, Jose Dault, Garbiñe Insausti, Edu Cárcamo
**Zuzendaritza/Dirección:** Iñaki Rikarte
**Aktoreak/Intérpretes:** José Dault, Garbiñe Insausti, Edu Cárcamo

### Antzerkia / Teatro

**AZAR0AK 04 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 80’
10 €



# *La Celestina*

## Secuencia 3 Artes y Comunicación

Egileek lan honen bidez, publiko gaztea tragikomediara hurbildu nahi dute eta aldi berean, ikusleak hunkitu. Kalixto Melibearekin maiteminduko da. Honek ezezkoa emango dionez, Kalixtoren morroi batek Zelestinaren zerbitzuak hartzeko aholkatuko dio. Zelestina emakume bizia eta adoretsua da, besteak hitzen bidez bereganatzen dakiena, harriak ere lizunkeriara bultzatzeko gai dena, emakume zekena eta sorgina. Alkauete bitartekariak, trikimailuen bidez, Melibea Kalixtorekin maitemintzea lortuko du. Zeregin horretan Kalixtoren morroiak izango ditu lagun, jabearen maite grinatik etekina atera nahi duten berberak. Baina Zelestinak sosak banatu beharko ditu, eta orduan tragedia ikaragarria piztuko da.

**La Celestina** constituye con Don Quijote y Don Juan uno de los tres grandes mitos universales que ha creado la literatura española. Pertenece a la comedia y tragedia humanística de la época que habla del fracaso al que están condenados los amores ilícitos. En la Celestina existe una confrontación entre personajes cultos y populares, el fin de la Edad Media y el florecimiento del Renacimiento con la llegada del mundo urbano, en el que los trabajos se han de pagar.
La idea central de la obra nos habla de la brevedad de la vida y de la necesidad de disfrutar de la juventud antes de que la vejez arruine la belleza.

**Fitxa artistikoa / Ficha artística**

**Ekoizlea/Productora:**
Secuencia 3 Artes y Comunicación
**Egilea/Autor:** Fernando de Rojas
**Zuzendaritza/Dirección:**
Mariano de Paco Serrano
**Aktoreak/Intérpretes:** Genma Cuervo, Alejandro Arestegui, Olalla Escribano, Juan Calot, Santiago Nogués, Rosa Merás, Irene Aguilar, Jordi Soler y Natalia Erice

**Antzerkia / Teatro**

**AZAROAK 05 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 130’
18 €


Drácula

# *Drácula*

## Tanchal 98

Mina, Seward doktorearen alabak, gauero egiten du amets begi gorridun izaki beldurgarri batekin, otsoekin eta saguzarrekin. Lucy bere lagun mina, Minaren aitaren lagun min baten alaba (Van Helsing irakaslea), hilda aurkitu dute. Mina gaixorik eta ahul dago, gaixotasun ezezagun batek jota dabil eta odola behar du. Bere senargaia, Jonathan Harker, dena emateko prest dago neskalaguna salbatzeko.

Minaren aitak Van Helsing lagunari deituko dio eta hau Sward doktorearen eritegi psikiatrikora helduko da bere alaba lurperatu eta Mina salbatzeko asmoz. Irakaslea zientzian eta gai okultistetan aditua bera, konturatuko da Konde errumaniar batek (Transilvaniatik etorri berria eta Swarden etxean sarritan bisitaria) sekretu larri bat ezkutatzen duela. Laster jakingo du Van Helsing bera dela sekretua agerian utzi eta Kondeari aurre egiteko gai den bakarra.

Esta obra genera uno de los sentimientos más difíciles de provocar en un escenario: el Miedo. Para ello, utiliza:

- **Imaginación.** Al público se le pide que visualice todo aquello que se le cuenta y la palabra del actor ejerce un poder hipnótico sobre la imaginación del espectador.
- **Sonorización** para crear atmósfera del mundo inquietante que se pretende conseguir; se juega con elementos sonoros.
- **Escenario**, simple y oscuro, con sorpresas de elementos en perfecto estado y el uso del patio de butacas como parte del lugar de la escena.
- **Luz.** Oscuridad. Puntos de luz llevados por los mismos personajes.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:** Tanchal 98, S.L.
**Egilea/Autor:**
Hamilton Deane y John L. Balderston
**Zuzendaritza/Dirección:**
Eduardo Bazo y Jorge de Juan
**Aktoreak/Intérpretes:**
Emilio Gutierrez-Caba, Ramón Langa, Martiño Rivas, María Ruiz, Amparo Climent, César Sánchez y Mario Zorrilla

### Antzerkia / Teatro

**AZAROAK 11 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 120’
18 €



# *Torvaldo* *Furioso*

## El Óbolo

Lan honetan Torvaldo eta Angelicaren bizitzaren ordu bat eskainiko digute, euren arteko harremanean erabakigarria den ordu betea. Goizaldean gertatuko da dena, mozorro-festa batetik bueltan. Horrela, Reinaldok bere bikia den Torvaldori egiten dion xantaiak kolokan jarriko du Torvaldok bere ezkontzarako irudikatutako alegiazko mundu adeitsua.
Burdina-jantzi fisiko eta psikologiko batean estu sartutako bi pertsonaia hauek emanaldian zehar jantzia atalez atal erantziko dute, orain arte gordeta izan dituzten asmo eta sentimenduak agerian utziz.
Ikuspuntu formal batetik, Torvaldo Furioso lanean drama klasiko baten egitura ematen duena desitxuratu egiten da. Horrela, pertsonaiek bizi dituzten zentzugabeko egoerek drama hau komedia garratz eta dibertigarria bilakatuko dute.

Una hora en la vida del matrimonio formado por Torvaldo y Angélica, una hora crítica y determinante en su relación. De madrugada, a la vuelta de una fiesta de disfraces, se precipitan los acontecimientos. El caballeresco y ficticio mundo que Torvaldo ha fabricado para su matrimonio se tambalea debido al chantaje del que es objeto por parte de su hermano gemelo Reinaldo.
Dos personajes encorsetados en una armadura física y psicológica. En el transcurso de la representación se despojan de ella, pieza a pieza, liberando sus más reprimidos impulsos.
Desde el punto de vista formal, lo que a simple vista se presenta como una estructura propia del drama clásico se distorsiona en Torvaldo Furioso. Las disparatadas situaciones, por las que atraviesan los personajes, convierten la pieza en una ácida y divertida comedia.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:** El Óbolo, S.L.
**Egilea/Autor:** Lucía Vilanova
**Zuzendaritza/Dirección:** Lino Ferreira
**Aktoreak/Intérpretes:**
Inma Nieto y Julio Cortázar

### Antzerkia / Teatro

**AZAROAK 12 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 70’
10 €



# *Plecs*

## Portal 71 Producciones Culturales

Lau pertsonaia elkartu eta aldendu egingo dira paperezko agertoki batean. Partitura jarraitzen saiatuko dira, soka, tekla, tutu eta artazi artean. Baina bat-batean agertokiaren atzeko oihaletik, zaratarik atera gabe tresna bat azalduko da agertokian. Modu arriskutsuan kulunkatuko da, eta gainetik akrobatak dantzan eta jira-biran arituko dira, makurtu eta zutitu egingo dira, eta desoreka emango diote... desorekari.

Teatro, circo, acrobacia y música.
Cuatro personajes se encuentran y desencuentran en un escenario de papel. Intentan seguir la partitura entre cuerdas, teclas, tubos y tijeras; cuando desde el telón de fondo, desde el silencio, un artefacto se precipita desafiante por el escenario, basculando peligrosamente. Los cuatro intérpretes se apoderan de los instrumentos de música, en el escenario todo se transforma; los acróbatas bailan, giran, se pliegan, se despliegan y añaden desequilibrio... al desequilibrio.
Plecs nos habla de los pliegues: del cuerpo humano con sus articulaciones y sus movimientos y los del papel, que se pliega y desplaza.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Ekoizlea/Productora:**
Portal 71 Producciones Culturales, S.L.
**Egilea/Autor:** Creación Colectiva
**Zuzendaritza/Dirección:**
Manolo Alcántara, Enric Ases, Karl Stets
**Aktoreak/Intérpretes:** Manolo Alcántara, Xabi Elicagaray, Claudio Inferno, Karl Stet

**Antzerkia / Teatro**

**AZAROAK 17 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 60’
10 €




# La *flauta mágica*

## de Wolfgang Amadeus Mozart
## Ópera 2001

Tamino suge erraldoi bat atzean orpoz orpo duen printzea da. Gauaren Erreginaren hiru damak sugea hiltzea lortuko dute, baina Papagenok, gizon txoriak, dagoeneko berak hil duela esango du eta damek zigortu egingo dute. Dametako batek Taminori Gauaren Erreginaren lepoko berezi bat emango dio, Erreginaren alabaren, Paminaren, irudia duena. Pamina Sarastrok, herrialde hurbil bateko erregeak, bahitu du. Tamino Paminarekin maiteminduko da eta Gauaren Erreginak hitza emango dio harekin ezkontzeko baimena emango diola, baldin eta askatzen badu.
Taminori hiru gaztek txirula magikoa emango diote opari, arrisku larrian baldin badago, laguntza izan dezan. Gauaren Erregina gaiztoa da eta bere asmo bakarra Sarastro desagerraraztea da. Sarastrok Paminari laguntza eman dio, besterik ez, eta Taminori ere halaxe egingo dio neskarekin ezkontzeko gainditu beharko dituen probetan. Azkenean, Sarastrok Gauaren Erregina menderatuko du, eta Tamino eta Pamina ezkondu egingo dira.

La flauta mágica es una de las óperas más representadas en todo el mundo. Su estatus como obra maestra de la ópera es incuestionable y ciertamente único dentro del más reducido ámbito del *singspiel* (ópera popular), donde no tiene comparación posible.
Algunas de sus melodías son muy familiares, como el dúo de Papageno y Papagena o el aria de coloratura de la Reina de la Noche titulada "*Der Hölle Rache kocht in meinem Herzen*" (La venganza del infierno hierve en mi corazón) y el aria del príncipe Tamino.
La ópera nos cuenta la historia del príncipe Tamino enamorado de la hija de la Reina de la Noche, Pamina, que ha sido secuestrada por Sorastro, según dice su madre. En realidad La Reina de la Noche es malvada y lo que quiere es eliminar a Sorastro, que, en realidad ha ayudado a Pamina. Tamino habrá de pasar una serie de pruebas para poder casarse con Pamina. Personajes como Papageno, Papagena, las tres damas de la Reina de la Noche... se entremezclarán en esta historia con final "feliz".

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:** Ópera 2001
**Egilea/Autor:** W.A. Mozart
**Zuzendaritza/Dirección:** Martin Mazik
**Interpreteak/Intérpretes:**
Filippo Pina, Violeta Todorova, Javier Galán, Silja Schlinder, Dimiter Dimitrov...

### Opera / Ópera

**AZAROAK 18 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 2 h. 50'
25 €



# *Una jornada particular*

## Pavana Producciones

**Una jornada particular** antzezlanean Francoren gizarte faxistaren biktima diren bi pertsona xume elkartuko dira istorio hunkigarri batean. Antonieta, familiako ama eredugarria, bere etxekoak zerbitzatzera makurtua dago eta seme-alabak bata bestearen atzetik egiten ditu, senarra prostitutekin dabilen bitartean. Gabriel erregimenak erbestera zigortutako irakaslea da, bere homosexualitatea dela-eta. Bien sentiberatasun eta enpatiak hurbildu egingo ditu, eta egun berezia biziko dute euren hunkiberatasuna azalarazten dutenean. Lan honek zera eskainiko digu, Espainian, frankismoaren pean, komunikazioaren arloak, emakumeen askatasunak eta erregimenak baimentzen ez zituzten sexu aukerak zituztenek jasandako errepresioaren testigantza.

**Una jornada particular** narra la conmovedora historia de un encuentro, convertido en desencuentro, entre dos humildes seres, víctimas de la sociedad fascista de Franco. Gabriel es un profesor condenado por el régimen a ser deportado debido a su homosexualidad. Antonieta, su vecina hasta entonces desconocida, madre de familia ejemplar, es rebajada a sirviente de la familia y engendradora de hijos que el delirio fascista requiere y premia; mientras, su marido se recrea con prostitutas. La sensibilidad y empatía de ambos los acerca y deja a flor de piel su emotividad en un día muy especial. En esta obra encontramos un testimonio de la represión que, bajo el franquismo, sufrió en España el mundo de la comunicación y quienes mantenían opciones sexuales distintas de las permitidas por el Régimen.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:**
Pavana Producciones, S.L.
**Egilea/Autor:** Ettore Scola / Rodolf Sirera
**Zuzendaritza/Dirección:** Rafael Calatayud
**Aktoreak/Intérpretes:**
Rafael Calatayud, Victoria Salvador

### Antzerkia / Teatro

**AZAROAK 19 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 80’
12 €

# mendiko euskal marinelen balada



# *Inorako bidaia*

## Kukubiltxo Antzerki Talde

Euskaraz

Beldurrak desadostasuna itotzen duen garaian, herritarrak gauero biltzen dira mendiko herrixka bateko "Utopia" izeneko tabernan. Zer esan baino zer egin ez jakiteak sortarazten duen isiltasunean murgildurik daude. Piok, tabernariak, egoera berri bat sortu nahian kontrabandozko uhinak irakurtzen dituen irratia erosi eta martxan jartzen du. Entzundako berriek es dute giroa eraldatzen harik eta " Haizea eta Askatasuna" programa sintonizatzen duten arte. Santurtziko portutik bederatzi iheslari askatasunaren bila abiatu direla entzuten dute, Karmen egunean euskal marinelei eskaintzen zaien lore eskaintza aprobetxatuz. Mendiko herri hartako biztanleak "Utopia" tabernan inprobisatutako Montserrat belaontzian ontziratuz marinel bilakatzen dira, Askatasuna helburu duen bidaia kolektiboan abiatuz.

En esta obra se recrea un episodio muy singular de nuestra pequeña historia local. Y es que relata cómo los habitantes de un pequeño pueblo de montaña, que viven en un sistema ideológico represivo, se juntan en una taberna, llamada "Utopía", dónde escuchan una radio capaz de captar las ondas del contrabando. Las noticias que escuchan no cambian el ambiente hasta que sintonizan el programa "Haizea eta Askatasuna", donde se enteran de que nueve fugitivos han partido del puerto de Santurtzi en busca de la libertad, aprovechando la ofrenda floral que se les hace a los marineros vascos el día del Carmen. Los habitantes del pueblo de montaña se convierten en marineros y se embarcan en un improvisado velero llamado Montserrat, dirigiéndose en un viaje colectivo en busca de un mismo fin: la Libertad.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Ekoizlea/Productora:**
Kukubiltxo Antzerki Talde, SCL
**Egilea/Autor:**
Arístides Vargas / Gotzon Barandiarán
**Zuzendaritza/Dirección:** Arístides Vargas
**Aktoreak/Intérpretes:** María Alonso, Ainhoa Alberdi, Iurgi Etxebarria, Marifeli Etxeandia, Josu Cámara

**Antzerkia / Teatro**

**AZAROAK 24 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 90'
10 €



# *Los peces no vuelan*

## Winnipeg Producciones

Gizon bakarti batek ezin ditu burutik kendu arrain gorri bat, zine-ekoiztetxe bat, zirko baten jabea, hegal egin nahi duen emakume bat, antzezlea izan nahi duen gizon bat... Bizitzaren ezustekoak direla-eta, elkar ezagutuko dute, eta euren arteko topaketa hauek eragin handia izango dute hartu behar dituzten erabakietan. Ikuskizun honetan errealitatea ametsarekin, irudiarekin eta eldarnioarekin nahastu, eta espazioa pertsonaien ametsen eta errealitateen ispilua izango da: kai bat, zirko zahar bat, itsasoa, tailer bat, hiria...

En este espectáculo la realidad se mezcla con el sueño, el imaginario, el delirio. El espacio (un muelle, un viejo circo, el mar, un taller, la ciudad) es el reflejo de los sueños y las realidades de los personajes: un hombre cansado de su soledad, obsesionado por un pez rojo, un par de hermanas con puntos de vista diametralmente distintas sobre cómo vivir, dos cirqueros, padre e hijo que no coinciden en qué hacer con la profesion que tienen. Una escenografía al servicio de la imaginación para entrelazar tres historias que se entrecruzan y modifican entre sí.

- Premio Duque de Lerma Mejor Obra, Mejor Montaje
- Mejor Montaje Escénico Festival de Teatro del Sur
- Premio Mejor Montaje-Mejor Dirección XXXIII Certamen Arcipestre de Hita
- 21 Premio Festival Telón Abierto...

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:** Winnipeg Producciones
**Egilea/Autor:** Compañía la Mona Ilustre
**Zuzendaritza/Dirección:** Miguel Bregante
**Aktoreak/Intérpretes:** Paula Barraza, Isidora Robeson, Diego Hinojosa, Tomás Preuss, Cristopher Sayago

### Antzerkia / Teatro

**AZAROAK 25 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 70’
10 €



# *Solo y Amargo*

## Titania Producciones

Rafael Amargo lehenengoz azalduko zaigu bakar-bakarrik agertokian. Bere egoera intimoenean eta inoiz baino pertsonalago ikusiko dugu. Emozioz beterik eta bakarrik lan egin nahi izan du, publikoari dena emateko. Sendo, ausart, minez, hainbat musikari eta flamenko-kantari baino ez dituela lagun, baina azken batean, Bakarrik... eta Amargo. Honakoa Granadako seme honen beste erronka bat da, flamenkoaren tradizioa eta berrikuntza uztartzeko asmoz, edozeri aurre egiteko gai den gizona.

Rafael Amargo es uno de los mejores y más reconocidos bailaores y coreógrafos del Estado. Sus espectáculos multiculturales, multidisciplinares, étnicos, cosmopolitas... insólitos —aunque nunca pierden el punto de referencia de la esencia del flamenco— han recibido reconocimientos entre los que destacan *cuatro Premios Max de las Artes Escénicas*. Rafael Amargo es, entre otros, *Premio Positano Leonide Massine* de la Danza como bailarín y coreógrafo, *Premio APDE* (Asociación de Profesores de Danza Española y Flamenco) y *Patrimonio Español por el Consejo Internacional de Danza UNESCO*.

### Fitxa artistikoa / Ficha artística

**Ekoizlea/Productora:**
Titania Producciones, S.L.
**Koreografoa/Coreógrafo:** Rafael Amargo
**Zuzendaritza/Dirección:** Montse Tixe
**Aktoreak/Intérpretes:**
Rafael Amargo (flamenko-dantzaria/bailaor) Batio (haria/cuerdas), Antoñito Maya (kutxa/cajón), Maite Maya (flamenko-kantaria/cantaora), Pedro Obregón (flamenko-kantaria/cantaor), Mario Montoya (gitarra/guitarra), Juan Pedro Cornejo (piano eta soinujolea/piano y acordeón), Juan Parrilla (flauta)

### Dantza / Baile

**AZAROAK 26 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 20:30
Iraupena/duración: 70’
18 €



# *Barroco*

## Teatro Di Piazza o D´Occasione

Ikuskizun bisual honetan TPO italiarrek Barrokoan zehar bidaia egingo dute eta dantza, musika eta ikus-entzunezko proiekzioak eskainiko dizkigute. Gaztelu batean bi dantzarik Barroko aldian zehar eramango gaituzte oso modu erakargarrian. Dantzariek batzuetan musika izango dute gidari, eta beste batzuetan ikus-entzunezko proiekzioak. Zenbaitetan haizeak egingo du musika, eta horrelakoetan haizea bera izango da gaztelu oniriko honetako geletan zehar dantzariak bultzatuko dituen indarra.

Los italianos TPO ofrecen un viaje por el Barroco, mediante una mezcla sorprendente de danza, música y proyecciones audiovisuales.
La pieza ofrece al espectador la visión de un castillo en el que dos bailarinas nos transportan, de una manera sugerente, por distintos momentos del Barroco. Las bailarinas se dejan guiar en determinados momentos por la música y en otros por las proyecciones audiovisuales. A su vez, el viento pone voz a varios momentos musicales del montaje, que ejerce de fuerza motora de las propias bailarinas, por las distintas estancias de este onírico castillo.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Konpainia/Compañía:**
Teatro Di Piazza o D´Occasione
**Egilea/Autor:**
Davide Venturini, Francesco Gandi
**Zuzendaritza/Dirección:**
Davide Venturini, Francesco Gandi
**Aktoreak/Intérpretes:**
Stefania Rossetti, Cristina D´Alberto

**Haur eta familia-antzerkia / teatro infantil y familiar**

**URRIAK 30 OCTUBRE**
Hora/Ordua: 18:00
Iraupena/duración: 50’
3 €



# *Ilargiaren* *Bi Aldeak*

## Hika Antzerki Taldea

Euskaraz

Bizitza ez da berdina ilargiaren alde bietan. Batean, gazte bat pozik dabil gudetan jolasten. Bestean, berriz, beste gazte bat guda ahazteko asmoz, jolastu egiten da. Arte-adar anitz jorratzen duen ikuskizuna dugu hau, dantza, antzerkia eta zirkoa, dena oso bisuala, 7 urtetik gorakoentzat propio egindako erritmo eta egoera erakargarriz josia. Horrela, ikuskizunaren tarte batzuetan umeak protagonistekin identifikatzea lortuko dute.

La vida late de manera diferente a ambos lados de la luna. A un lado, un joven se divierte jugando a las guerras. Al otro, otro joven juega para olvidarse de ella.
Espectáculo multidisciplinar de danza, teatro y circo, muy visual, lleno de situaciones y ritmos envolventes.

**FITXA ARTISTIKOA / FICHA ARTÍSTICA**

**Konpainia/Compañía:** Hika Antzerki Taldea
**Egileak/Autores:**
Agurtzane Intxaurrga, Arantxa Iturbe
**Zuzendaritza/Dirección:**
Agurtzane Intxaurraga
**Aktoreak/Intérpretes:** Miren Gaztañaga, Amaia Pascual, Maider Yabar

**Haur eta familia-antzerkia / teatro infantil y familiar**

**AZAROAK 13 NOVIEMBRE**
Hora/Ordua: 18:00
Iraupena/duración: 58’
3 €

Serantes
KULTUR ARETOA

Babesarekin/Con el patrocinio:

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura

Laguntzarekin/Con la colaboración:

EL CORREO
PARTE DE TI ZURE BAITAN

La Red española de Teatros, Auditorios, Circuitos y Festivales de titularidad pública

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

Santurtziko Udal Euskaltegia